

ALDI GOGOR BAT

Inoiz ezagutu izan ez ditugun bezalako huelgak eta lanuzte organizatuak ikusten ari gara azkenengo hilabete hauetan. Hego Euskal Herriko lau eskualdeetan, industria apurrik duen herririk ez bide da gelditu huelgaren katepean lotzeke.

Gasteizko hirian gertatuak geure barne-muinetan ditugularik, nafarrek, oinarrizko konbenio orokor bat eraiki nahi dute. Bizkaian, burdin-lantegietan diharduen 70.000 langile lotuko dituen konbenio bat prestatzen ari dira. Gipuzkoan ez dakigu nola bukatuko diren Michelin, Irimo eta Bombas Itur-ko huelga aldi luzeak.

Langileriaren mugimendu orokor eta kementsu honetan zehar, azkenaldiotan egin diren batzarreak, diru-bilketak, aukera demokratikoak etab langileengan, klase kontzientzia bizia esnatu dute. Bidenabar, langile asko beren buruak organizatzeko duten kapazitateaz ohartu da. Agian, inoiz baino zentzu eta garbitasun haundiagoa agertu dute, diru bilketarako eraiki diren lan-sailek. Funtsean, egundo baino garbiago ikusi eta sumatu da, sindikato demokratiko baten behar gorria!

Ez dago batere zalantzarik: langileriak aro latz eta zail bat du aurrekaldean. Etengabeko inflazioaren gurpilean eguneroko bizimodua itxuragabe garestitu da; langile baten soldatak, horretara, gero eta ahalmen gutxiago du. Begibistan dagoen arazo arrunta hauxe.

Huelga mugimendu hauetan sekula ez bezalako batasun iraunkor bat nabari da. Michelingo huelga bera, agian, duela zenbait urte ez zen ezagutuko. Langileen egitazko helburuen aurka sortzen diren talde-joko eta azpikeriak gairiditzeko ez baita batasun demokratiko bat bezalakorik. Talde bakoitzak, dela politikoa edo sindikala, bere burua eguerdiko eguzkiaren argitara agertzeko bidea hartu behar duela ere, irakasten digu egoera honek.

Beharbada ordea, aipatu batasun horren zantzurik nabarmenenak, langileriak proposatu dituen errebeindikazioetan aqiri dira. Batasun haundi bat ageri da; asteen 42 orduko lanaldia, 60 urtetan iubilaketa, urtean hilabete osoko oporrak, amnistia, despidorik eza, giza-eskubide eta sindikal-askatasuna etab, errebeindikatzeara.

Eskabide hauetan, soldaten zenbatasun hutsaz gainera, egungo gobernamolde honek, hori eta horrenbestez irentsi ez ditzakeen politik-eskaeraz planteatu ditu langileriak. Eskakizun multzo honen gailurrean sindikal-askatasunaren premia larria nabarmentzen da. Agian eskakizun honen eraqinez edo, egungo gobernuak ere, beste eginbide guztien gainetik sindikal-erreformari eman dio lehentasuna. Nola-koa izanen da gobernuak egin-asmo duen erreforma hau? Hona hemen lan-aile anitzek egiten duen galdera orokorra. Bestalde, egun hauetan Espainiako UGT sindikatoak, Batzarre ireki bat egin du Madrillen. Batzarre hau, legez zilegiztatua izan da. Pluralismoaren zantzuak nabari direla aitortu duen kazetaririk ere izan du. Gure ustez, egitazko erreforma, egungo sindikal-egiturak desegin eta pluralismoari bide ematea izaki.

ANATSAN

BAKOITZA BERE ALDETIK

Alderdi Sozialista batek ezin preteni dezake, sozialismo guzia bera denik. Hainbat gutiago, egia osoa berak duenik. Edo arrazoizko bide bakarra berak dakienik. Zuzentasuna monopolizatzen duenik. Alderdi Sozialistek maiz hortara jo badute, garbi esan beharra dago, Alderdi guzieren joera dela hori.

Masa Alderdi Sozialista bat ere ez litzateke izango euskal sozialismo guzia.

Eta masa Alderdi izan nahi duelakoxe, absurdua litzateke sozialismo garbiena, jatorrena, etc., izateko anbizio-rik ere. Alderdi honen asmoa sozialismoaren aldeko jendeterien erakunde eta tresna izatea da. Eta ez nolabaiteko perfekzionismorik eta santutasunik. Alderdi honek ideia sozialista garbiak beharko ditu. Baina masa Alderdi Sozialistaren zereginik ez da ideien garbitasuna garbi-garbi gordetzeko Inkisiziorik izatea, heretiko guzieren kontra. Masa Alderdi sozialistak sozialismoa defendatuko du. Jendeterien sozialismoa eramango du aurrera. Eta ez halako liburu-erakunde sozialismorik.

Jendea, ordea, oso bide diferentetatik eta esperentzia desberdinetatik heldu da kontzientzia sozialistara Euskal Herrian. Kontzientzia ere desberdina da.

Bat, baserriko bere lanetan ailegatu da sozialismora. Bere esperentziak egin ditu. Esperentzian arabiarako go-goetak. Halakoxe usteetara ailegatu da. Bestea kultur lanetan ari zen eta sozialismora ailegatu da. Bestea buruzago, agian: estudioak ekarri du sozialismora. Sozialisten erakus-bide onak «konbertitu» du bestea. Langile horrek lantegi ttipi batetan lan egiten zuen, famili-entrepesa batetan: harreman pertsonalak zituzten beren artean, uga-zaba bera ez zen lanik gutien egiten zuena. Besteak, berri, lantegi haundi anonimo batetan. Roke arrantzale zen, Marisa dependienta...

Sozialismoa ez da goitik behera osatutako dotrinarik. Ekintzan, arian arian, lortutako jendearen kontzientzia bizia da. Sozialismoa «irakasten» duten liburuak laguntza izan litezke. Batzuk laguntza ona dira. Baina laguntzarik baino gehiago, mundu honetako ez libururik eta ez teoriarik bat bakarra ere, ez da.

Peilokeria hutsa da hori. Baina gure jokabide eta postu-tetan badugu makina bat aldatu beharrik, honelaxe diren gauzak halaxe izan daitezten.

Masa Alderdi Sozialistak esperentzia guziok biltzen ditu. Ez da lantegitar anonimoko langilearen kontzientzia bakarrik. Aberriaren alde burrukan sozialismora heldu denaren eta pedagogia askatzailearen aldeko ahaleginetan heldu denaren, kontzientzia da, eta abar, eta abar. Ezin pentsa liteke, arrazoia batek duenik, eta besteek hari atxeki behar diotenik.

Sozialista den-denek eta guzi-guziek ere ez dute langileriak une honetantxe egiten duen burrukan sartu beharrik. Haurrentzako kimika testuak prestatzen enplega daitteke, burruka hortatik nahiko urruti, sozialistarik zintzoena.

Bakoitzak berea eta guziok dena.

Joxe AZURMENDI

**aurrezki kutxa
ziurtasuna
eta geroa**



**CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL
DE PAMPLONA**